
LAN
HARREMANEN
KONTSEILUA
CONSEJO DE
RELACIONES
LABORALES



EUSKADIKO EGOERA SOZIOLABORALA

2021EKO I. SEIHILEKOA

Seihilekoko txosten hau, 2021eko urtarriletik ekainera bitartekoa, Lan Harremanen Kontseiluaren informazio-planaren ataletako bat da. EAeko egoera sozioraberala aztertzea du helburu, enpleguaren bilakaera eta negoziazio kolektiboa ardatz nagusi hartuta.

2021eko iraila


1. JARDUERA EKONOMIKOAREN BILAKAERA	4
2. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA, GATAZKAK ETA ENPLEGU- ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK	6
2.1.- NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA	6
2.2.- HITZARMEN KOLEKTIBOEN EZ-APLIKATZEAK EAE-N	12
2.3.- GREBAK	14
2.4.- PRECO-N AURKEZTUTAKO GATAZKAK	16
2.5.- ENPLEGU-ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK	19
3. ENPLEGUA ETA KONTRATAZIOA	21
3.1.- JAKINARAZITAKO KONTRATAZIOAREN BILAKAERA	21
3.2.- GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA	26
3.3.- LANGABEZIA	29

1. JARDUERA EKONOMIKOAREN BILAKAERA

2021eko bigarren hiruhilekoan, EAeko BPGd-aren urtetik urterako hazkundera % 18,6koa izan zen. Gorakada oso nabarmena izan zen, neurri batean 2020ko bigarren hiruhilekoan jardueran izandako beherakada handiaren ondorioz. Orduan, pandemiak euskal ekonomiaren zati handi bat geldiarazi zuen, eta BPGd-a % 19,9 jaitsi zen urtetik urtera.

Espainiako ekonomiak, bere aldetik, antzeko portaera izan zuen bigarren hiruhilekoan. Estatuko BPGd-a ere nabarmen hazi zen (+% 19,8).

Munduko ekonomiari dagokionez, Txina eta AEB dinamismo handia erakusten ari dira. Aldiz, euroguneko herrialdeak intentsitate apalagoarekin hazten ari dira, eta 2021erako BPGd-a % 4,2 haziko dela aurreikusten da.



Ekonomiaren susperraldi horri esker, enpleguak gora egin du, eta ABEEEn zeuden pertsona asko lanean hasi dira berriro, nahiz eta, artean, EAEn 19.000 pertsona inguru zeuden egoera horretan 2021eko ekainean.

Hala, gure erkidegoan, Gizarte Segurantzako hileko batez besteko afiliazioa % 2,5 hazi zen ekainean, 2020ko hil bereko datuekin alderatuta; guztira, 966.373 pertsona zeuden afiliatuta ekainean, pandemiaren aurretik (2019ko ekaina) baino % 0,7 gutxiago. Sektore publikoan enplegua sortu da, eta, beraz, sektore pribatuak seihileko honetan izan duen dinamismo txikiagoa konpentsatu du horrek.

Testuinguru honetan —diru-politika hedakorra, eskaeraren hazkunde handia, hausturak zenbait produkturen hornikuntza-kateetan, eta energiaren kostuaren gorakada—, inflazioaren igoera da lehen seihilekoaren ezaugarri nagusietako bat; izan ere, EAEn, urtetik urterako tasak negatiboak izan ziren 2020ko abenduan (–% 0,3), eta % 2,9koak izan ziren 2021eko ekainean, hau da, portzentajezko hiru puntutik gorako hazkundera izan zen.

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egindako aurreikuspenen arabera, 2022ko lehen hiruhilekoan berreskuratuko da pandemia aurreko BPGd-aren maila. Langabezia-tasaren urteko batezbestekoa % 10,3raino jaitsiko da 2021ean, eta jaisten jarraituko du, 2022aren amaieran % 9,6 ingurukoa izan arte.


Hala ere, oraindik ere ziurgabetasun handiak daude munduan zenbait gairen inguruan; hala nola, txertaketa-kanpainen bilakaera eta aldagai berrien agerpena, martxan jarritako laguntza-planen benetako eragina, banku zentralak aktiboen erosketak murriztea, inflazioaren bilakaera eta, hala badagokio, inflazioari eusteko hartzen diren neurriak.

2. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA, GATAZKAK ETA ENPLEGU-ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA

2.1- NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA

2021eko lehen seihilekoaren amaieran, langileen % 34,4k eguneratuta zuen hitzarmena (erabateko indarraldian), % 55,8k luzapen-egoeran eta, azkenik, langileen % 9,8k indargabetuta.



Gipuzkoako industria siderometalurgikoaren hitzarmena 2020ko bigarren seihilekoan erregistratu ondoren —iraungita zegoen, eta horrek 31.000 langileri baino gehiagori eragiten zien—, langile gutxi zuten beren hitzarmena iraungita.

¹ Indarreko hitzarmenak: Negoziatzaileek adostutako aplikazio-epe arruntaren barruan dauden hitzarmenak.

Indarraldia luzatuta duten hitzarmenak: Indarraldi arrunta amaitu ondoren luzapen-egoeran edo aurreraeraginean dauden hitzarmenak.

Iraungitako hitzarmenak: Salatu ondoren eta aurreraeragin-aldia —legezkoa edo ohikoa— igaro ondoren indarraldia galdu dutenak, beren eremuari estaldura ematen dion goragoko eremuko hitzarmenik egon gabe.


Hortaz, hitzarmenak iraungita zituzten eta estaldurarik gabe zeuden langileen ehunekoa % 10etik beherakoa zen.

2020. urtearen amaieran, beren hitzarmena indarrean zuten langileen ehunekoa azken urteotako handienetako bat izan zen (% 55,4); 2021eko lehen sei hilekoan, ordea, aurrerapauso gutxi egin dira negoziazio kolektiboan².

2021eko lehen sei hilekoan, zazpi sektore-hitzarmen eta 74 enpresa-hitzarmen negoziatu ziren EAEn. Hitzarmen horiek, guztira, 24.500 pertsonari eman diete estaldura. Estatuan, EAEn eragina duten 29 hitzarmen negoziatu ziren (bederatzi, sektorekoak, eta 20, enpresakoak), 19.000 pertsonari eragin zietenak.

Gainera, hainbat sektore-mahai daude EAEn, eta uztailean, Bizkaiko eraikuntzaren sektore-hitzarmena argitaratu zen BAOn; beraz, hitzarmen hori ez da txosten honetan sartu.

3. GRAFIKOA.
EAE-KO LANGILEEN EHUNEKOAK, HITZARMENAREN
(SEKTOREKOA/ENPRESAKOA) INDARRALDIAREN ARABERA



Eremu funtzionalen arabera (sektorea/enpresa) aztertuz gero, aurrerapenak apalak izan dira bi esparru horietan 2021eko urtariletik ekainera bitartean, eta indarrean dauden enpresa-


² Hala ere, adierazi behar da 2021eko ekainean arazo teknikoak izan direla Hitzarmen Kolektiboen Erregistroaren sarbide telematikoa; hori dela eta, lehen sei hilekoan erregistratutako hitzarmenen kopurua txikitu egin da.

hitzarmenak dituzten langileen ehunekoa azken urteotako txikiena izan da.

Dena den, sektore-esparruan, joan den urtean EAEn lortutako akordioei esker —Bizkaiko eta Gipuzkoako industria siderometalurgikoaren hitzarmenak sinatu ziren (70.000 mila pertsonari baino gehiagori ematen diete estaldura)—, 2021eko lehen sei hilekoaren amaieran indarrean zeuden sektore-hitzarmenak zituzten langileen ehunekoa handiagoa izan zen 2015-2018 aldikoa baino, aurreko bi urteetako baino txikiagoa izan bazen ere.

Negoiazio kolektiboaren bilakaera lurralde-eremuaren arabera (EAE/Estaturak) aztertuta, ikusiko dugu EAEn eragina duten Estatuko hitzarmenen kasuan, nahiz eta aurrerapenak izan, 2021ean hitzarmenak eguneratu dituzten langileen ehunekoa (% 34,1) azken urteotako txikiena dela.

4. GRAFIKOA.
EAE-KO LANGILEEN EHUNEKOAK, HITZARMENAREN (EAE-KO/ESTATUKO) INDARRALDIAREN ARABERA (1)



(1) EAE: EAEn negoziatutako hitzarmenak.

Estaturak: EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenak.

Halaber, azpimarratu behar da Estaturak hitzarmenak iraungita zituzten langileen ehunekoa % 0,6koa baino ez dela, 2020an % 10,3tik % 1,1era jaitsi baita, 2019ko bigarren sei hilekoan Ingeniaritza Enpresa eta Azterlan Teknikoetako Bulegoen Hitzarmena sinatu ondoren. Bizkaiko eta Gipuzkoako Bulego eta Despatxuetako hitzarmenek

indargabetuta jarraitzen dutenez, haietako langile batzuk aipatutako beste hitzarmen horren babesean daude.

Ekitaldia hasi zenetik lurralde-esparruek izan duten bilakaera aztertuz gero, ikusiko dugu lehen sei hil hauetan aurrerapausorik handiena lurralde artekoan izan dela; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ekimeneko Ikastetxeen Hitzarmen Kolektiboa erregistratu eta argitaratu ondoren, hitzarmenak indarrean zituzten langileen ehunekoa % 14,8tik % 47,1era igo zen.

2021eko lehen sei hil hauetan, EAEn eragina duten bederatzita sektore-hitzarmen sektorial sinatu dira Estatuan. Hitzarmen horiek ia 15.000 langileri ematen diete estaldura, eta honako hauek izan dira garrantzitsuenak: saltoki handietakoa, ia 8.500 langilerekin, eta bankuetakoa, 4.000 langilerekin. Horrez gain, 20 enpresa-hitzarmen sinatu dira, guztira 4.500 langile babesten dituztenak. Horren ondorioz, hitzarmen eguneratuak dituzten langileak % 22,6tik % 34,1era igaro dira urte hasieran.


EAEko gainerako eremuetan, aurrerapenak urriagoak izan dira.

Hala, Arabako lurralde historikoan, 18 hitzarmen sinatu dira: 2 enpresa-hitzarmen, aisialdi hezigarrikoa eta ardoaren industria eta merkataritzakoa, ia 17 langile babesten dituztenak; eta 16 enpresa-hitzarmen. Horren ondorioz, urte hasierako % 13,3tik % 18ra igaro da hitzarmenak eguneratuta dituzten langileen ehunekoa.

Gipuzkoan, bestalde, 22 enpresa-hitzarmen sinatu dira, eta bi sektore-hitzarmen. Horietan garrantzitsuena kale-garbiketa eta hondakinen bilketakoa da, 1.000 langileri ematen diena estaldura. Hori dela eta, langileen % 41,7ek zuen hitzarmena eguneratuta ekainaren amaieran.

Bizkaiari dagokionez, bi sektore-hitzarmen sinatu dira, ia 200 langileri estaldura ematen dietenak, eta 33 enpresa-hitzarmen, ia 4.300 langile babesten dituztenak. Hitzarmen eguneratuak dituzten langileen ehunekoa % 29,8tik % 32ra igo da seihileko honetan.

5. GRAFIKOA.
2021EKO NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA EAE-N, LURRALDE-
ESPARRUEN ARABERA




2021-01-01eko datuak

2021-06-30eko datuak

- Hitzarmena iraungita duten eta babesteko goragoko eremuko beste hitzarmenik ez duten langileen ehunekoa.
- 2021ean indarraldi luzatuan eta berrizteko zain dauden hitzarmenen eraginpeko langileen ehunekoa.
- Hitzarmena indarrean duten langileen ehunekoa.

2021eko lehen seiuhilekoaren amaieran itundutako soldata-igoera % 0,88koa izan da, EAEn indarrean dauden hitzarmen guztietarako; Estatuan indarrean dauden hitzarmenentarako hitzartutakoa (% 1,56koa) baino igoera txikiagoa izan du.

6. GRAFIKOA.
EAE-N^e ETA ESTATUAN INDARREAN DAUDEN HITZARMENETAKO SOLDATA-IGOERAK EHUNEKOTAN



*EAE: EAEn negoziatutako hitzarmenetan eta EAEn eragina duten estatukoetan itundutako soldata-igoera.

2017. eta 2018. urteetan, antzekoak izan ziren eremu batean eta bestean itundutako soldata-igoerak; EAEn aplikatu beharreko hitzarmenetakoak pixka bat handiagoak izan ziren. Hala ere, Estatu osoan indarrean zeuden hitzarmenetan itundutako igoerak EAEn aplikatu beharrekoak baino handiagoak izaten hasi ziren 2019tik aurrera; izan ere, alde horiek areagotu egin dira 2021ean.

Eremu funtzionalen arabera, enpresa-eremuko soldata-igoera hitzarmen sektorialetakoa baino handiagoa izan da (% 1,10ekoa eta % 0,81ekoa, hurrenez hurren).

1. TAULA.

**EAE*. 2021EAN INDARREAN DAUDEN ETA ERREGISTRATU DIREN
HITZARMENETAKO SOLDATA-IGOERAREN EHUNEKOA**

	2021ean indarrean	2021ean erregistratuak
Enpresa	% 1,10	% 1,00
Sektorea	% 0,81	% 1,01
Guztira	% 0,88	% 1,01

*EAEn negoziatutako hitzarmenetan eta EAEn eragina duten estatukoetan itundutako soldata-igoera. 2021-06-30eko datuak.

2021ean erregistratu diren hitzarmenetan jasotako soldata-igoera % 1,01ekoa izan da EAEn, eta igoerak antzekoak izan dira sektore-hitzarmenetan (% 1,01ekoa) eta enpresakoetan (% 1ekoa).

2.2- HITZARMEN KOLEKTIBOEN EZ-APLIKATZEAK³ EAE-N

Hitzarmen Kolektiboen Erregistroan⁴ eskuragarri dagoen informazioaren arabera, 2021eko lehen seihilekoan hitzarmenen 10 ez-aplikatze erregistratu ziren EAEn, 2020ko epe berean baino bi gehiago. Hala ere, ez-aplikatze horiek eragindako pertsonen kopuruak behera egin du: 2020an, 99 pertsonari eragin zieten guztira, eta 78 pertsonari 2021ean.

Estatu osoan, behera egin du ez-aplikatzeen kopuruak: 2020ko lehen seihilekoan, 330 ez-aplikatze erregistratu ziren; 2021eko aldi berean, berriz, 307 (-% 7). Orobat, behera egin du eragindako langileen kopuruak: 2020an, 10.291 ziren, eta 2021ean, 9.341 (-% 9,2).

EAEn, gordailututako ez-aplikatze guztietan, alderdiak ados jarri ziren kontsulta-aldian, eta, beraz, ez zen inola ere beharrezkoa izan Estatutuaren arabera Hitzarmen Kolektiboak Ez Aplikatzeko Prozedurak Ebazteko Organoak (ORPRICCE) esku-hartzea.

³ 2012ko lan-erreformak enpresei aukera eman die hitzarmen aplikagarrian aurreikusita dauden lan-baldintza jakin batzuk enpresan ez aplikatzeko, ekonomia-, teknika-, antolakuntza- edo produkzio-kausak daudenean eta enpresaren eta langileen ordezkariek ados jartzen badira. Adostasunik lortzen ez bada, desadostasuna hitzarmenaren batzordera bidera daiteke. Batzorde horrek esku hartzen ez bada edo akordiorik lortzen ez bada, alderdiek Precora jo beharko dute. Precok ez bada desadostasuna konpontzen, alderdietako edozeinek ORPRICCEra jo ahal izango du (haren egoitza LHKn dago).

⁴ <http://explotacion.mtin.gob.es/regcon/pv/index.htm>


Ez-aplikatzeen gaiari dagokionez, soldaten zenbatekoa sei ez-aplikatzeen gai nagusia izan zen, eta 49 langileri eragin ziren.

Soldaten zenbatekoa ez ezik, ordainsari-sistemarekin zerikusia zuten beste gai batzuk ere izan ziren beste hiru ez-aplikatzeen gai nagusiak; ez-aplikatze horiek 21 langileri eragin zieten. Bestalde, zortzi pertsonari eragin zien ez-aplikatze baten kasuan, ordutegia eta lanaldiaren banaketa izan ziren gai nagusiak. Beraz, soldaten zenbatekoa, bakarrik edo beste kontu batzuekin batera, EAEn gordailututako ez-aplikatzeen gaia izan zen.

Estatuan, ez-aplikatzeen % 92,5etan kontsultaldian lortu zen alderdien arteko akordioa, % 2,9tan hitzarmenaren batzorde parekidean, eta ez-aplikatzeen % 0,7tan bitartekaritzaren edo laudoaren bidez, borondatezko prozedura batean. Azkenik, 12 ez-aplikatzeen eskaera (guztizkoaren % 3,9) hiru alderdiko organo batek hartutako erabakiaren ondorioz ebatzi ziren.

2021eko lehen sei hiletan, Estatuan, aurreko urtearekin alderatuta, nabarmen handitu zen hiru alderdiko organo batek esku hartutako ez-aplikatzeen ehunekoa: 2020an, ez-aplikatze guztien % 0,6 izan zen, eta 2021ean, berriz, % 3,9.

Soldataren zenbatekoa (bakarrik edo beste kontzeptu batzuekin lotuta) Estatuan gordailututako ez-aplikatzeen % 73ren arrazoia izan zen, eta langileen % 66,1i eragin zion. Lanaldiarekin, ordutegiarekin eta lan-denboraren banaketarekin lotutako gaiak, ostera, ez-aplikatzeen % 12,1en atzean egon ziren (langileen % 15,6ri eragin zioten).



Industria eta zerbitzu-sektorea izan ziren —hurrenez hurren, lau ez-aplikazio eta 34 langile eraginda, eta bost ez-aplikazio eta 30 langile eraginda— EAEn ez-aplikatze gehien izan zuten sektoreak. Eraikuntza-sektorean ez-aplikatze bat baino ez zen aurkeztu, eta 14 langileri eragin zien. Lehen sektorean ez zen bat ere egon.

Aurreko txostenetan adierazi denez, oso enpresa gutxik erabili dituzte ez-aplikatzeak COVID-19ak eragindako zailtasunei aurre egiteko; hain zuzen, enpresa gehien-gehienek aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak (ABEEEak) erabili dituzte, haien barne-malgutasuneko neurriak direla eta.

LAN-GATAZKAK ETA ENPLEGU-ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK


2.3- GREBAK

Lehenik eta behin esan behar da EAEn 2021eko urtarriletik apirilera bitartean egindako greben datuak soilik genituela txosten hau egiten ari ginenean; beraz, aurreko ekitaldiekin alderaketak egiteko, lehen lau hiletako datuak soilik hartu ditugu kontuan.

2021eko urtarriletik apirilera bitartean, greba-kopuruak (82) % 10,9 egin zuen behera, aurreko urteko epe berarekin alderatuta; eragindako pertsonen kopuruak (6.816), berriz, % 231 egin zuen gora, eta galdutako lanaldien kopuruak (54.499), % 156,7.

Hala ere, bi urteen arteko konparazioan, kontuan hartu behar da 2020an pandemiak geldialdia ekarri zuela jarduera ekonomikoan, eta horrek, agian, eragina izan zuela greben, kaltetutako langileen eta landu gabeko lanaldien kopuruan.

8. GRAFIKOA.
EUSKADI. GREBEN, ERAGINDAKO LANGILEEN ETA LAN EGIN GABEKO EGUNEN KOPURUA, URTARRILETIK APIRILERA BITARTEAN



Iturria: Lan eta Enplegu Saila. Eusko Jaurlaritzak.

2021eko gatazka gehienak enpresakoak izan ziren, sektore-gatazken ondorioz lan egin ez ziren lanaldiak 3.464 baino ez baitziren izan.

Negoiazio kolektiboa izan da orduan ere greben arrazoi nagusia, baina nabarmendu behar da antolamenduarekin, lan-sistemekin edo enpresak berregituratzeko prozesuekin lotutako gatazkek asko ugaritu direla; izan ere, aztergai dugun aldian, horrekin lotuta egon ziren greben % 24,4, eragindako langileen % 29,2 eta lan egin gabeko egunen % 17,8.

Jarduera-sektorearen arabera, industria-arloko gatazkak ugaritu ziren: greben % 39, eragindako pertsonen % 52 eta lan egin gabeko egunen % 83,9.

Zerbitzu-sektorean, bestalde, greben % 56,1 egin zen, eta eragindako langileak % 46,3 eta galdutako lanaldiak % 14,5 izan ziren hurrenez hurren. Eraikuntzaren sektorean, berriz, grebak % 4,9 soilik izan ziren, eragindako langileak % 1,7 eta lan egin gabeko egunak % 1,6. Nekazaritza-sektorean ez zen grebarik egin.

2.4- PRECO-N AURKEZTUTAKO GATAZKAK


Lan Harremanen Kontseiluak Preco akordioa (Lan Gatazkak Ebazteko Borondatezko Prozedurei buruzko Lanbide arteko Akordioa) kudeatzen du bere hiru lurralde-zerbitzuen bitartez. 2000ko otsailaren 16an, Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkariatarik handieneko sindikatu- eta enpresa-konfederazio guztiek (ELAk, LABek, CCOOk eta UGTk) sinatu zuten akordio hori (66. zenbakiko EHAA, 2000ko apirilaren 4koa).

2021eko lehen seihilekoan, 381 eskaera aurkeztu ziren, aurreko urteko aldi berean baino 106 gehiago, eta 192.388 pertsona egon ziren eraginpean (131.733, 2020an). Horrek esan nahi du aurreko urtearekin alderatuta % 38,5 handitu dela aurkeztutako eskaeren kopurua eta % 46 eragindako langileen kopurua.

2021eko lehen seihilekoan aurkeztutako eskaeren kopuruak nabarmen egin zuen gora 2020ko lehen seihilekoan egindakoekin alderatuta (hurrenez hurren, 381 eta 275); hori, funtsean, COVID-19aren pandemiarekin lotutako gatazka-mailaren eraginaren ondorio izan daiteke. Eragin hori 2020ko maiatzean eta ekainean hasi zen nabaritzen, eta 2021eko urtarriletik ekainera bitarteko hil guztietan areagotu zen.

Bestalde, 2020ko martxoaren bigarren erdian eta apirilean, eskaerak ia erabat gelditu ziren pandemiaren ondorioz.

Orobat, COVID-19aren ondorioz, Precon aurkeztutako eskaeren tipologia aldatu egin da. Pandemia hasi zenetik, gatazka gehienek honako hauekin izan dute lotura: pertsonen babes- eta segurtasun-neurriekin, ordaindutako baimena berreskuratzearekin, ABEEE-en baldintzekin eta garapenarekin, lan-egutegi eta -ordutegiarekin, eta alarma-egoeraren indarraldian onartutako araudiaren aplikazioarekin. Hori guztia zenbait sektoretan gertatu da bereziki; hain zuzen, pandemiaren eragin kaltegarriarik handiena jasan dutenetan. Horien artean, aipatzekoak dira zaharren egoitzak, errepideko anbulantzia bidezko osasun-garraioa, hainbat esparrutako garbiketak eta ehungintzaren merkataritza.



2021eko lehen seihilekoan aurkeztutako gatazka kolektiboek eragindako langileen kopurua handitu egin da, 2020ko epe berarekin alderatuta, batez ere gatazka kolektibo sektorialen kopuruak gora egin baitu.

Hala, 2021ean, zazpi sektore-gatazka aurkeztu ziren; 2020an, berriz, bost izan ziren. Gainera, zazpi gatazka horietako bitan —bi-biak Bizkaiko industria siderometalurgikokoak—, eragindako langileen kopurua handia izan zen. Horren ondorioz, 2021ean, 116.167 pertsonak izan zuten sektore-gatazken eragina; 2020an, berriz, 41.726 pertsonak.

Bestalde, 2021ean, tamaina handiko enpresei eragin dieten gatazken kopuruak gora egin du; hau da, gatazka gehiagok eragin diete 1.000 langiletik gora duten enpresei. 2021eko lehen seihilekoan, 11 gatazka kolektibo aurkeztu dira horrelako enpresetarako, eta 2020an, berriz, sei baino ez. Hala ere, gatazka horien eraginpean dauden pertsonen kopurua ia berdina da bi urteetan (28.982 langile 2021ean eta 30.000 2020an).

Era berean, pandemiaren ondorioz, topaketak modu birtualean egin dira 2021ean, plataforma telematikoak erabiliz. Topaketa presentzialekin alderatuta, topaketa birtualek hainbat muga dituzte, baina, hala ere, plataforma telematikoek negoziazio-prozesu errealak eta eraginkorrak garatzea ahalbidetzen dute, bai eta akordioak lortzea ere, baldin eta gatazkaren baldintzak egokiak badira eta alderdiek borondatez jokatzeko badute.

2021ko urtarriletik ekainera bitartean amaitutako gatazkei dagokienez, haien % 20,2 adostasunez konpondu zen (% 20,5, aurreko urteko lehen seihilekoan).

Aurreko urteetan bezala, alderdiek gatazka kolektibo gutxi jarri dute adiskidetze-, bitartekaritza- edo arbitraje-prozeduren mende Lan Harremanen Kontseiluaren elkargoko profesionalen esku-hartzearekin; izan ere, seihileko horretan amaitutako gatazken % 4,3tan soilik jo da prozedura horretara (% 6,4 izan zen 2020an).

2021eko lehen seihilekoan, 12 gatazka kolektibo amaitu dira adiskidetze-prozeduraren bidez. Horietako zazpi afiliazio sindikala egiaztatzeko prozedura bereziari buruzkoak izan dira. Bestalde, sei gatazka bitartekaritza-prozeduren bidez amaitu dira, eta ez da arbitraje-laudorik eman.

Guztira, 17 prozedura bideratu dira 2021eko lehen seihilekoan; 2020an berriz, 15 prozedura amaitu ziren profesional baten esku-hartzearen bidez.

2.5- ENPLEGU-ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK


2021eko urtarrilaren 1etik maiatzaren 31ra bitartean, 1.128 enplegu-erregulazioko espediente aurkeztu ziren EAEn. Espediente horiek 12.037 langileri eragin zieten. Beraz, espediente-kopurua % 95,1 txikitu zen, eta eragindako langileen kopurua, % 92,2, aurreko urteko epe berarekin alderatuta; orduan, 22.922 espediente aurkeztu ziren, eta horiek 154.325 pertsonari eragin zieten.



Epealdi horretan aurkeztutako 1.128 ABEEEE-etatik, 742 (% 65,8) ezinbestekoak izan ziren, eta 2.861 langileri eragin zieten (eragindako langile guztien % 23,8ri). Arrazoi teknologikoen (teknikoen, antolakuntzakoek edo produktibokoek) eragindako espedienteak (16) espediente guztien % 1,4 izan ziren, eta eragindako langileen % 1i (125 langileri) eragin zioten; arrazoi ekonomikoek eragindako espedienteak (370), berriz, espediente guztien %32,8 izan ziren, eta eragindako langile guztien % 75,2ri (9.051 langileri) eragin zioten.

Langile horietako gehien-gehieni (% 95,2ri) aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea (ABEEEEa) egin zitzaizen; 584 langileri (% 4,8ri) soilik egin zitzaizen lan-harremana azkentzeko espedientea.

11. GRAFIKOA.

URTARRILETIK MAIATZERA BITARTEAN AURKEZTUTAKO ENPLEGU-ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEEK ERAGINDAKO PERTSONAK EAE-N


Iturria: Lan eta Enplegu Saila. Eusko Jaurlaritzak.

Epe horretan bideratutako espedienteen % 89,7 egin zuten 25 langiletik beherako enpresek, baina enpresa horietako langileak (4.296) enplegu-erregulazioko espedienteek eragindako guztien % 35,7 soilik izan ziren.

25 eta 100 langile bitarteko enpresek espedienteen % 7,8 egin zuten, eta eragindako pertsonen % 25,6 hartu zuten barne. Enpresarik handienek (100 langile baino gehiago dituztenek) espediente guztien % 2,5 egin zuten, eta langileen % 38,7ri eragin zioten.

Sektorearen arabera, grebekin gertatu den bezala, industria-sektoreko enpresek aurkeztutako espedienteen kopuruan izandako igoera azpimarratu behar da: espedienteen % 19,9 eta eragindako langileen % 62,6. Zerbitzu-sektorean, espediente-kopuru handiagoa aurkeztu arren (espediente guztien % 75,4), eragindako pertsonak % 34,9 baino ez ziren izan. Eraikuntza eta lehen sektorea azken tokian daude: espedienteen % 2,5 eta eragindako langileen % 2 eraikuntzan, eta % 2,2 eta % 0,5, hurrenez hurren, nekazaritzan eta arrantzan.

3. ENPLEGUA ETA KONTRATAZIOA

Atal honetan, enpleguaren bilakaera aztertuko dugu, batez ere jakinarazitako kontratazioari eta Gizarte Segurantzako afiliazioari buruzko datuen bidez.

Halaber, erregistratutako langabeziaren bilakaera aztertuko dugu, bai eta, horren ildoan, Eustatek hiru hilean behin argitaratzen duen BJAREN (Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren) emaitza nagusiak ere.

3.1- JAKINARAZITAKO KONTRATAZIOAREN BILAKAERA

Ekonomia pixkanaka suspertzen ari da, eta, horren ondorioz, nabarmen handitu da 2021eko lehen seihilekoan sinatutako lan-kontratuen kopurua (+% 21), aurreko urteko epe bereko datuekin alderatuz gero; izan ere, orduan nabarmenagoa izan zen pandemiaren eragina.

Hala ere, 2021eko urtarriletik ekainera bitartean jakinarazitako kontratazioa pandemia aurreko azken urtean (2019ko urtarriletik ekainera) baino % 20,6 txikiagoa izan zen.

2. TAULA.
EAE-N 2021EKO LEHEN SEIHILEKOAN JAKINARAZITAKO KONTRATUEN
KOPURUA KONTRATU-MOTAREN ARABERA

I. SEIHILEKOA	JAKINARAZITAKO KONTRATUAK			BANAKETA	
	Guztira	Mugagabeak	Aldi baterakoak	Mugagabeak	Aldi baterakoak
2019	487.565	42.030	445.535	% 8,6	% 91,4
2020	319.630	29.029	290.601	% 9,1	% 90,9
2021	386.894	37.032	349.862	% 9,6	% 90,4
2021 eta 2020 arteko aldakuntza	% 21,0	% 27,6	% 20,4		
2021 eta 2019 arteko aldakuntza	-% 20,6	-% 11,9	-% 21,5		

Iturria: EEZP.

Datuak kontratu-motaren arabera aztertuz gero, ikusiko dugu kontratu mugagabeen bilakaera hobea izan dela (haien kopurua % 27,6 handitu zen 2020ko lehen seihilekoarekin alderatuta) aldi baterako kontratuena baino (% 20,4).

Hala ere, igoera hori gorabehera, sinatutako kontratu gehienak (10etik 9) aldi baterakoak izan ziren (% 90,4), aurreko urteetako joerari jarraituz.

Industriaren dinamismoa azpimarratu behar da: 2020an baino % 42,7 kontratu gehiago sinatu dira, eta, guztira, 2021eko lehen seihilekoan, 70 mila kontratu baino gehiago zeuden sektore horretan; hau da, 2019ko lehen seihilekoan baino % 10 gutxiago, besterik ez.

Gainerako sektoreetan ere kontratu-kopuruak gora egin du, baina ez hainbeste: 2020ko lehen seihilekoarekin alderatuta, % 18,3 handitu da zerbitzu-sektorean, eta % 6,5 eraikuntzaren sektorean.

3. TAULA.
EAE-N JAKINARAZITAKO KONTRATUEN KOPURUA JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA

	I. SEIHILEKOAN JAKINARAZITAKO KONTRATUAK			URTEK URTERAKO ALDAKUNTZA	
	2019	2020	2021	2020-2021	2019-2021
KONTRATUAK GUZTIRA	487.565	319.630	386.894	% 21,0	-% 20,6
Nekazaritza	6.959	6.263	5.789	-% 7,6	-% 16,8
Industria	78.142	49.368	70.443	% 42,7	-% 9,9
Eraikuntza	17.950	14.195	15.117	% 6,5	-% 15,8
Zerbitzuak	384.514	249.804	295.545	% 18,3	-% 23,1

Iturria: EEZP.

Nabarmendu beharra dago zerbitzu-sektorean jaitsi dela gehien kontratazioa pandemia aurreko egoerarekin alderatuta (-% 23,1), eraikuntza-sektorean eta industrian baino gehiago (hurrenez hurren -% 15,8 eta -% 9,9).

Hirugarren sektorean, nabarmentzekoa da kontratazioak behera egin duela pandemiak gehien eragindako jardueretan, bereziki ostalaritzan; izan ere, 2019ko lehen seihilekoaren eta 2021eko lehen seihilekoaren artean, % 62 murriztu zen ostalaritzako kontratazio-bolumena. Hala, ostalaritzak kontratazio guztiarekiko duen pisu erlatiboa erdira txikitu zen: 2019an, EAEko kontratuen % 17 zuen, eta, 2021ean, berriz, % 8,1.

Datuak lanaldi-motaren arabera aztertuta, lanaldi partzialeko kontratuek zein lanaldi osokoek bilakaera positiboa izan dute 2020ko datuen aldean, eta antzeko hazkunde-tasak izan dituzte (+% 21,2 eta +% 19,9, hurrenez hurren).

4. TAULA.
EAE-N JAKINARAZITAKO KONTRATUAK LANALDI-MOTAREN ARABERA

	I. SEIHILEKOAN JAKINARAZITAKO KONTRATUAK			URTETIK URTERAKO ALDAKUNTZA	
	2019	2020	2021	2020-2021	2019-2021
KONTRATUAK GUZTIRA	487.565	319.630	386.894	% 21,0	-% 20,6
Lanaldi Osokoak	289.242	196.629	235.662	% 19,9	-% 18,5
Lanaldi Partzialekoak	192.815	120.297	145.836	% 21,2	-% 24,4
Aldizkako Finkoak	1.471	785	1.583	% 101,7	% 7,6
Praktikak eta Prestakuntza	4.037	1.919	3.813	% 98,7	-% 5,5

Iturria: EEZP.

Sexuaren araberako azterketari dagokionez, eta 2020ko lehen sei hilekoan ez bezala —gizonek eta emakumeek sinatutako kontratuak proportzio berean murriztu ziren—, 2021eko lehen sei hilekoan, gizonen eta emakumeen kontratazioak gora egin zuen, baina gizonenak emakumeenak baino gehiago (hurrenez hurren, +% 23,2 eta +% 18,8).

Hirugarren sektorean, susperraldia motelagoa zen gainerako sektoreetan baino —industriak eta eraikuntzak portaera hobea zuten—, eta horren ondorio izan daiteke emakumeen kontratazioaren dinamismo txikiago hori; izan ere, emakumezko langileen pisu erlatiboa handiagoa izaten da hirugarren sektorean, eta industria eta eraikuntza nabarmen maskulinizatutako sektoreak izaten dira.

Aurreko ekitaldietako joera berari jarraituz, 2021eko lehen sei hilekoan, emakumeek sinatu zituzten lanaldi partzialeko kontratu gehienak (kontratu guztien % 65,8); lanaldi osoko kontratu gehienak, berriz, gizonek sinatu zituzten (% 62,3).


5. TAULA.
EAE. LEHEN SEIHILEKOAN SINATUTAKO ALDI BATERAKO KONTRATUAK, IRAUPENAREN ARABERA

	7 EGUNEKOA EDO TXIKIAGOAK	8 EGUN ETA HILABETE ARTEKOA	1 HILABETE ETA 3 HILABETE ARTEKOA	3 HILABETE ETA 6 HILABETE ARTEKOA	6 HILABETE ETA URTEBETE ARTEKOA	URTEBETETIK GORAKOA	MUGA-GABEA	GUZTIRA
2019	172.944	49.201	35.316	33.625	11.581	1.472	141.396	445.535
2020	100.325	37.001	25.501	19.715	7.058	1.274	99.727	290.601
2021	115.887	47.338	32.620	25.510	9.035	1.599	117.873	349.862
2020 eta 2021 arteko aldakuntza (%)	% 15,51	% 27,94	% 27,92	% 29,39	% 28,01	% 25,51	% 18,20	% 20,39
2019 eta 2021 arteko aldakuntza (%)	-% 32,99	-% 3,79	-% 7,63	-% 24,13	-% 21,98	% 8,63	-% 16,64	-% 21,47

Iturria: EEZP.


Kontratuen iraupenari erreparatuz gero, 2021eko lehen sei hilekoan kontratu gehiago egin ziren 2020ko aldi berean baino; izan ere, igoera orokorra da tarte guztietan. Hala ere, hazkunde-tasarik txikiena 7 eguneko edo gutxiagoko kontratuetan izan zen; kontratu horiek ohikoagoak izaten dira hirugarren sektorean beste sektoreetan baino. 2019ko datuekin alderatuta, kontratu horien bolumena askoz txikiagoa izan zen, orduan baino % 32,9 txikiagoa, hain zuzen.

Kontratazioa hilez hil aztertzen badugu, ikusiko dugu 2021eko urtarrilean jakinarazitako kontratazioa % 29 txikitu zela 2019ko urtarrileko datuekin alderatuta. Adierazlea apur bat hobetu zen 2021eko otsailean (-% 23,9), eta, martxoan, 67.000 kontratu baino gehiago sinatu ziren; hori da pandemiaren aurreko balioekiko diferentzialik txikiena (-% 9,8).



Ondoren, pandemiaren laugarren olatuarekin batera, kontratazioak atzera egin zuen berriro: 60.744 kontratu jakinarazi ziren 2021eko apirilean, eta 65.777 kontratu, maiatzean (% 27,5 gutxiago 2019ko maiatzean baino).

2021eko ekainean, kontratu-kopurua (81.546) seihileko osoko handiena izan zen (% 12,8 gutxiago 2019ko ekainean baino). Datu horri erreparatuta, eta urtetik urterako aldakuntza-tasa leunduak kontuan hartuta, esan genezake lan-merkatuak pixka bat hobera egin dezakeela 2021eko bigarren erdirako.



Azkenik, laburpen gisa, esan behar da ekainera arte sinatutako kontratuen bolumena oraindik urrun zegoela 2019an erregistratutakotik, nahiz eta, oro har, kontratazioa bere maila berreskuratzen ari zen 2021eko lehen seihilekoan.

Kontratazioa hilez hil hobetzen ari da, beraz, baina osasun-egoeraren bilakaerak eta horren ondorioz ezarritako murrizketek eragin negatiboa izan dute. Industrian eta eraikuntzan handiagoa izan da kaltea, eta zerbitzu-sektorean, txikiagoa. Gainera, gizonen sinatutako kontratuen kopurua zertxobait handiagoa izan da emakumeen sinatutakoa baino.

⁵ Tasa leunduak erabiltzen direnez, ausazko gorabeherak partzialki ezabatzen dira eta joeratik kanpoko datuak baztertu egiten dira; hartara, joeraren noranzkoa hobeto zehaztu daiteke.


3.2- GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA

2021eko lehen sei hilekoaren amaieran, EAEn 966.373 pertsona zeuden Gizarte Segurantzaren afiliatuta hilero batez beste, eta afiliatuen kopurua handiagoa izan zen 2020ko ekainekoa baino; hain zuzen, 23.479 pertsona gehiago ziren (+% 2,5).

Beraz, ekaineko afiliatuen kopurua pandemiaren aurreko mailara hurbiltzen ari da dagoeneko: 2019ko ekainean baino 7.044 gutxiago (-% 0,7) zeuden afiliatuta.

Afiliatuen galera hori ez da oso handia, neurri batean ABEEE-en estaldura handiaren ondorioz (2021eko ekainean, 18.997 afiliatu zeuden egoera horretan). Dena den, pandemia hasi zenetik, 2021eko ekainean egon ziren ABEEE gutxien, Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioak hilero argitaratzen dituen datuen arabera.

14. GRAFIKOA.
GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA EAE-N
(HIL BAKOITZEKO BATEZBESTEKOA)



Iturria: Gizarte Segurantza.


Sexuaren araberako azterketak erakusten duenez, 2021eko ekainean, emakumeen batez besteko afiliazioa 2019an lortutakoa baino pixka bat gorago zegoen (+% 0,2); gizonen kasuan, berriz, datua osasun-krisiaren aurrekoa baino % 1,6 txikiagoa zen.

Araubide Orokorrean, afiliazioaren igoera % 3koa izan zen 2020ko ekainetik 2021eko ekainera bitartean, eta Langile Autonomoen Araubide Berezian, % 0,5 txikitu zen.

Datuek erakusten dutenez, kontratu mugagabeak zituzten Araubide Orokorreko afiliatuen⁶ kopuruak % 1,7 egin zuen gora 2020ko ekainarekin alderatuta, eta aldi baterakoak zituzten afiliatuen kopuruak hazkunde handiagoa izan zuen (% 6,4).

Ildo horretan, esan behar da 2020an, pandemia agertu ondoren, aldi baterako kontratua zuten afiliatuen kopurua gehiago txikitu zela kontratu finkoa zuten afiliatuena baino. Hala ere, jarduera eta kontratazioa berreskuratu ahala, berriro handitzen ari da aldi baterako kontratua duten afiliatuen ehunekoa.

15. GRAFIKOA.
EAE. ARAUBIDE OROKORREKO AFILIAZIOA KONTRATU-MOTAREN ARABERA
(SEIHILEKOAREN AMAIERAKO DATUAK)*



(*) Kanpoan utzi dira Nekazaritzako Sistema Berezian eta Etxeko Langileen Sistema Berezian afiliatutakoak eta bestelakoak (funtzionarioak, zaintzaile ez-profesionalak eta akatsak edo ez-egiteak).

Iturria: Gizarte Segurantza.


⁶ Kanpoan utzi dira Nekazaritzako Sistema Berezian eta Etxeko Langileen Sistema Berezian afiliatutakoak eta bestelakoak (funtzionarioak, zaintzaile ez-profesionalak eta akatsak edo ez-egiteak).

Lanaldi partzialeko kontratuak zituzten afiliatuen kopuruak behera egin zuen 2020ko lehen seihilekoan (-% 9,4), lanaldi osokoak baino gehiago (-% 3,1). 2021eko lehen seihilekoan, berriz, gora egin du, baina igoera hori lanaldi osoko kontratuena baino txikiagoa izan da.

Hala, lanaldi partzialeko afiliazioak % 2,7 egin zuen gora 2021eko lehen seihilekoaren amaieran, aurreko urtearekin alderatuta: 140.970 afiliatu ziren guztira. Lanaldi osoko kontratua zuten afiliatuen kopuruak, berriz, % 3,1 egin zuen gora aldi berean; hain zuzen, 519.180 pertsona izan ziren guztira. Hori dela eta, afiliatuen kopurua 2019ko lehen seihilekoko maila berreskuratzen ari da⁷.

Industria eta eraikuntza ez bezala, zerbitzu-sektoreak denbora gehiago behar izan du suspertzen hasteko, gaixotasunak aurrera egin ez dezan hartutako zenbait neurriren ondorioz. Kontuan hartuta zerbitzu-sektorean daudela lanaldi partzialeko kontratu gehien, horrek azaldu dezake kontratu-mota horren gorakada motelagoa.

16. GRAFIKOA.
EAE. ARAUBIDE OROKORREKO AFILIAZIOA, LANALDI-MOTAREN ARABERA
(SEIHILEKOAREN AMAIERAKO DATUAK)*



(*) Kanpoan utzi dira Nekazaritzako Sistema Berezian eta Etxeko Langileen Sistema Berezian afiliatutakoak eta bestelakoak (funtzionarioak, zaintzaile ez-profesionalak eta akatsak edo ez-egiteak).

Iturria: Gizarte Segurantza.

⁷ Ikus aurreko 6. oin-oharra.

Horren ondorioz, lanaldi osoko afiliatuen proportzioa pixka bat handitu zen, % 77,3ra iritsi arte; lanaldi partzialeko afiliatuena, berriz, % 21ekoa zen.

Azkenik, eta badirudi ere jakinarazitako kontratu-kopuruari eta afiliazioaren bilakaerari buruzko datuek ez dutela joera homogeenorik, kontuan izan behar dugu jakinarazitako kontratuen kasuan aldi batean sinatutako kontratuez ari garela (ez pertsonen), eta kontratu horien % 90 aldi baterakoa dela; afiliazioa aztertzean, berriz, une jakin batean sisteman alta emanda dauden langileen kopuruari buruz ari gara.


Jakinarazitako kontratazioaren bilakaerak lan-merkatuaren dinamismoari eta sinatzen diren kontratu berrien ezaugarriari buruzko informazioa ematen digu. Afiliazioak, berriz, alta emanda dauden pertsonen kopuruari buruzko informazioa ematen digu; pertsona horien % 70 inguruk kontratu mugagabea zuen 2021eko ekainean.

3.3- LANGABEZIA

Langabeziari buruzko datuak aztertu aurretik, adierazi behar da aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean dauden pertsonak ez dituztela barne hartzen enplegu-bulegoetan erregistratutako langabeziari buruzko estatistikek eta Eustaten BJaren (Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkesta) biztanleria langabeari eta langabezia-tasari buruzko datuek; izan ere, langile horiek, enpresarekin duten lan-harremanari eusten diotenez, ez dira langabetzat hartzen estatistika-ondoreetarako.

ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA

17. GRAFIKOA.
EAE. ENPLEGU-BULEGOETAN ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA (HILEKO AZKEN EGUNA)



Iturria: EEZP.

Nolanahi ere, eskura dagoen informazioak agerian uzten duenez, 2021eko lehen seihilekoan lan-merkatua hobetzen ari bazen ere, langabezia ez da pandemiaren aurretik zegoen mailatik behera jaitsi.

2021eko ekainean, 122.359 langabe zeuden Lanbiden izena emanda. Hortaz, urtetik urterako % 15,3ko beherakada gertatu da kopuru horretan, baina 11.016 pertsona gehiago (+% 9,9) zeuden 2019ko ekainean baino.

COVID-19aren krisiaren ondorioz, enplegu-bulegoetan izena eman zuten langabeen kopurua nabarmen handitu zen, eta 2020ko abuztuan, 146.450 pertsona zeuden. Harrezkero, erregistratutako langabezia txikitzen ari da, baina pandemiaren aurreko mailara iritsi gabe.

2021eko lehen seihilekoaren amaieran, langabeziaren urtetik urterako jaitsiera handiagoa izan da gizonen artean emakumeen artean baino. Hala ere, pandemiaren aurreko egoerarekin alderatuz gero (2019ko ekainean) ikusten da erregistratutako langabeziaren hazkundera handiagoa izan dela gizonen artean emakumeen artean baino (+% 12,8 eta % +7,8, hurrenez hurren).


Edonola ere, langabeziaren bilakaeraren alderdirik aipagarrienetako bat krisiak gazteengan (25 urtetik beherakoak) izan duen eragina da, beste adin-tarteetan baino handiagoa izan baita; izan ere, adin-tarte horretan, langabezia-maila % 33,5 handiagoa zen 2019ko ekainean baino.

Sektorearen arabera, eta 2019ko ekainarekin alderatuta, langabeziaren hazkunde erlatiborik handiena zerbitzu-sektorean gertatu da (+% 12,4). Lehen sektoreak eta industriak hazkunde txikiagoak izan dituzte (+% 6,7 eta +% 5,6, hurrenez hurren); eraikuntzak, azkenik, igoerarik txikiena izan du (+% 2,5).

Biztanleriaren Jardueraren Araberako Inkesta (BJA)

Bestalde, Eustaten Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren (BJAren) arabera, EAEko langabezia-tasa % 10,3koa izan da 2021eko bigarren hiruhilekoan, 2019ko hiruhileko berean baino lau hamarren handiagoa, alegia.

18. GRAFIKOA.
EAE. LANGABEZIA-TASA (BJA)



Iturria: Eustat

BJAk argitaratzen dituen datuen arabera, enpleguaren eta jardueraren adierazle guztiak urtetik urtera hobetzen ari dira. Hala ere, txosten honetako beste atal batzuetan adierazi bezala, oraindik bide luzea dago 2019ko jardueraren eta enplegu-mailetara itzultzeko.

Hau da, 2021eko bigarren hiruhilekoan, 27.300 biztanle landun gehiago zeuden (+% 3) 2020ko bigarren hiruhilekoaren aldean. Hala ere, 2019ko aldi berean baino 7.400 biztanle landun gutxiago zeuden EAEn.

Diferentzial hori sektore pribatuan eta sektore publikoan enpleguak izandako bilakaera desberdinaren ondorioa da. Izan ere, sektore pribatuan galdu da lanpostu gehien. Sektore horretan, 17.300 landun gutxiago zeuden 2019ko ekainean baino; enplegatu publikoen kopurua, berriz, handitu egin zen, 11.900 langile gehiago baitziren.

Amaitzeko, eta beste batzuetan esan dugun bezala, enpleguaren bilakaerari buruzko ziurgabetasun pixka bat dago oraindik ere, eta ziurgabetasun hori faktore hauen mende dago, besteak beste: pandemia eraginkortasunez gaitzitzea, jarduera ekonomikoaren martxa eta ezarritako estimulu-neurrien eragina.